

Ley Orgánica 1/1982, de 5 de mayo, de Protección Civil del Derecho al Honor, a la Intimidad Personal y Familiar y a la Propia Imagen

BOE, nº 115, de 14 de mayo

CAPÍTULO PRIMERO

Disposiciones generales

Artículo 1

1. El derecho fundamental al honor, a la intimidad personal y familiar y a la propia imagen, garantizado en el artículo 18 de la Constitución, será protegido civilmente frente a todo género de intromisiones ilegítimas, de acuerdo con lo establecido en la presente Ley Orgánica.

2. El carácter delictivo de la intromisión no impedirá el recurso al procedimiento de tutela judicial previsto en el artículo 9 de esta Ley.

En cualquier caso, serán aplicables los criterios de esta Ley para la determinación de la responsabilidad civil derivada de delito.

3. El derecho al honor, a la intimidad personal y familiar y a la propia imagen es irrenunciable, inalienable e imprescriptible.

La renuncia a la protección prevista en esta ley será nula, sin perjuicio de los supuestos de autorización o consentimiento a que se refiere el artículo 2 de esta ley.

Artículo 2

1. La protección civil del honor, de la intimidad y de la propia imagen quedará delimitada por las leyes y por los usos sociales atendiendo al ámbito que, por sus propios actos, mantenga cada persona reservado para sí misma o su familia.

2. No se apreciará la existencia de intromisión ilegítima en el ámbito protegido cuando estuviere expresamente autorizada por la ley o cuando el titular del derecho hubiese otorgado al efecto su consentimiento expreso.

3. El consentimiento a que se refiere el párrafo anterior será revocable en cualquier momento, pero habrán de indemnizarse en su caso, los daños y perjuicios causados, incluyendo en ellos las expectativas justificadas.

Artículo 3

1. El consentimiento de los menores e incapaces deberá prestarse por ellos mismos si sus condiciones de madurez lo permiten, de acuerdo con la legislación civil.

2. En los restantes casos, el consentimiento habrá de otorgarse mediante escrito por su representante legal, quien estará obligado a poner en conocimiento previo del Ministerio Fiscal el consentimiento proyectado.

Si en el plazo de ocho días el Ministerio Fiscal se

Maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoa, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzkoa

EAO, 115. zk., maiatzaren 14koa

LEHENENGO KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua

1. Konstituzioaren 18. artikuluan bermaturiko oinarrizko eskubideak, ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako, eta norberaren irudirako eskubide horrek, babes zibila izango du, esku-sartze bidegabe guztien aurrean, lege organiko honetan ezarritakoarekin bat etorriz.

2. Esku-sartzearen delitu-izaerak ez du eragotzik lege honen 9. artikuluan ezarritako babes judzialari buruzko prozedurara jotzea.

Edozein kasutan ere, lege honen irizpideak aplikatuko dira, delituaren ondorioz sortutako erantzukizun zibila zehazteko.

3. Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako, eta norberaren irudirako eskubidea ukaezin, besterenduezin eta preskribaezina da.

Deuseza izango da lege honetan jasotako babesari uko egitea, baina horrek ez die kalterik egingo lege honen 2. artikuluko baimen- edo adostasun-kasuei.

2. artikulua

1. Legeek eta gizarte-usadioek zehaztuko dute ohorearen, intimitatearen eta norberaren irudiaren gaineko babes zibila. Horretarako, kontuan hartuko da, nork bere egintzen arabera, berarentzat nahiz bere familiarentzat erreserbatzen duen esparrua.

2. Babestutako esparruan ez da bidegabeko esku-sartzerik atzemango, legeak esanbidez baimentzen duenean esku-sartzea, edo eskubidearen titularrak esanbidezko adostasuna ematen duenean.

3. Aurreko paragrafoko adostasuna edozein unetan ezeztatu ahal izango da; baina, hala denean, sortutako kalte- galerak ordaindu beharko dira, eta, kalte- galerak horien artean, justifikatutako igurikimenak izango dira.

3. artikulua

1. Adingabeek eta ezgaiek eurek eman beharko dute adostasuna, baldin eta euren heldutasun-baldintzek hori ahalbidetzen badute, legeria zibilarekin bat etorriz.

2. Osterantzeko kasuetan, lege-ordezkariak eman beharko du adostasuna, idatziz. Lege-ordezkariak betebeharra izango du, emango duen adostasuna Fiskaltzari aurretiaz komunikatzeko.

Zortzi eguneko epean Fiskaltza adostasuna

opusiere, resolverá el Juez.

Artículo 4

1. El ejercicio de las acciones de protección civil del honor, la intimidad o la imagen de una persona fallecida corresponde a quien ésta haya designado a tal efecto en su testamento.

La designación puede recaer en una persona jurídica.

2. No existiendo designación o habiendo fallecido la persona designada, estarán legitimados para recabar la protección el cónyuge, los descendientes, ascendientes y hermanos de la persona afectada que viviesen al tiempo de su fallecimiento.

3. A falta de todos ellos, el ejercicio de las acciones de protección corresponderá al Ministerio Fiscal, que podrá actuar de oficio o a instancia de persona interesada, siempre que no hubieren transcurrido más de ochenta años desde el fallecimiento del afectado.

El mismo plazo se observará cuando el ejercicio de las acciones mencionadas corresponda a una persona jurídica designada en testamento.

Artículo 5

1. Cuando sobrevivan varios parientes de los señalados en el artículo anterior, cualquiera de ellos podrá ejercer las acciones previstas para la protección de los derechos del fallecido.

2. La misma regla se aplicará, salvo disposición en contrario del fallecido, cuando hayan sido varias las personas designadas en su testamento.

Artículo 6

1. Cuando el titular del derecho lesionado fallezca sin haber podido ejercitarse por sí o por su representante legal las acciones previstas en esta ley, por las circunstancias en que la lesión se produjo, las referidas acciones podrán ejercitarse por las personas señaladas en el artículo 4.

2. Las mismas personas podrán continuar la acción ya entablada por el titular del derecho lesionado cuando falleciere.

CAPÍTULO II

De la protección civil del honor, de la intimidad y de la propia imagen

Artículo 7

Tendrán la consideración de intromisiones ilegítimas en el ámbito de protección delimitado por el artículo 2 de esta ley:

1. El emplazamiento en cualquier lugar de aparatos de escucha, de filmación, de dispositivos ópticos o de cualquier otro medio apto para grabar o reproducir la vida íntima de las personas.

2. La utilización de aparatos de escucha, dispositivos ópticos, o de cualquier otro medio para el conocimiento de la vida íntima de las personas o de manifestaciones o cartas privadas no destinadas a

ematearen aurka jartzen bada, epaileak emango du ebazena.

4. artikulua

1. Hildakoaren ohore, intimitate edo irudiaren gaineko babes zibilaren akzioak egikarituko ditu hildakoak berak horretarako bere testamentuan izendatu duenak.

Pertsona juridikoa ere izenda daiteke.

2. Izendapenik ez badago edo izendatutako pertsona hil bada, babesak eskatzeko legitimazioa izango dute ukitutako pertsonaren ezkontideak, ondorengoeak, aurrekoek eta neba-arrebek, baldin eta bizirik badaude, ukitutako pertsona hiltzean.

3. Horiek guztiak ez badaude, Fiskaltzak egikarituko ditu babes-akzioak. Fiskaltzak jardun ahal izango du ofizioz edo pertsona interesadunak hala eskatuta, baldin eta laurogei urte baino gehiago igaro ez badira, ukitua hil zenetik.

Epe bera hartuko da kontuan, testamentuan izendatutako pertsona juridikoari dagokionean akzioak egikaritzea.

5. artikulua

1. Aurreko artikuluan aipatu ahaideetarik bat baino gehiago bizi bada, horietarik edonork egikaritu ahal izango ditu hildakoaren eskubideak babesteko ezarri akzioak.

2. Erregela bera aplikatuko da, hildakoaren testamentuan pertsona batzuk izendatu direnean, salbu eta hildakoak aurkakoa xedatu duenean.

6. artikulua

1. Urratutako eskubidearen titularra hiltzen denean, berak edo bere lege-ordezkaraien bidez lege honetan ezarritako akzioak egikaritzeko aukerarik izan gabe, urratzea eragin zuten inguruabarrengatik, aipatu akzioak egikaritu ahal izango dituzte 4. artikuluko pertsonek.

2. Pertsona horiek eutsi ahal izango diote urratutako eskubidearen titularrak jarritako akzioari, titular hori hiltzen denean.

II. KAPITALUA

Ohorearen, intimitatearen eta norberaren irudiaren babes zibila

7. artikulua

Lege honen 2. artikuluko babes-esparruan, bidegabeko esku-sartzeak izango dira:

1. Edozein tokitan jartzea entzuteko edo filmatzeko aparatuak, gailu optikoak edo pertsonen bizitza intimoa grabatzeko nahiz erreproduzitzen balio duten bideetatik beste edozein.

2. Entzuteko aparatuak, gailu optikoak edo beste edozein bide erabiltzea, pertsonen bizitza intimoa ezagutzeko, edo bide horiek zein pertsonak erabili eta pertsona horrentzat ez diren adierazpen edo

quién haga uso de tales medios, así como su grabación, registro o reproducción.

3. La divulgación de hechos relativos a la vida privada de una persona o familia que afecten a su reputación y buen nombre, así como la revelación o publicación del contenido de cartas, memorias u otros escritos personales de carácter íntimo.

4. La revelación de datos privados de una persona o familia conocidos a través de la actividad profesional u oficial de quien los revela.

5. La captación, reproducción o publicación por fotografía, filme, o cualquier otro procedimiento, de la imagen de una persona en lugares o momentos de su vida privada o fuera de ellos, salvo los casos previstos en el art. 8.2.

6. La utilización del nombre, de la voz o de la imagen de una persona para fines publicitarios, comerciales o de naturaleza análoga.

7. La imputación de hechos o la manifestación de juicios de valor a través de acciones o expresiones que de cualquier modo lesionen la dignidad de otra persona, menoscabando su fama o atentando contra su propia estimación.

Artículo 8

1. No se reputarán, con carácter general, intromisiones ilegítimas las actuaciones autorizadas o acordadas por la Autoridad competente de acuerdo con la ley, ni cuando predomine un interés histórico, científico o cultural relevante.

2. En particular, el derecho a la propia imagen no impedirá:

a) Su captación, reproducción o publicación por cualquier medio cuando se trate de personas que ejerzan un cargo público o una profesión de notoriedad o proyección pública y la imagen se capte durante un acto público o en lugares abiertos al público.

b) La utilización de la caricatura de dichas personas, de acuerdo con el uso social.

c) La información gráfica sobre un suceso o acaecimiento público cuando la imagen de una persona determinada aparezca como meramente accesoria.

Las excepciones contempladas en los párrafos a) y b) no serán de aplicación respecto de las autoridades o personas que desempeñen funciones que por su naturaleza necesiten el anonimato de la persona que las ejerza.

Artículo 9

1. La tutela judicial frente a las intromisiones ilegítimas en los derechos a que se refiere la presente ley podrá recabarse por las vías procesales ordinarias o por el procedimiento previsto en el artículo 53.2 de la Constitución.

También podrá acudirse, cuando proceda, al recurso

© Lege-testu guztien itzulpena eta lan honetako aurkibide analitikoa:

F. Javier Arrieta Idiakez, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola
eta Ester Urrutia Idoiaga

© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

gutun pribatuak ezagutzeko, bai eta horiek grabatzea, erregistratzea edo erreproduzitza ere.

3. Pertsona edo familiaren bizitza intimoari buruzko egitateak zabaltza, egitate horiek eragina dutela pertsona edo familia horren entzute eta izen onean, bai eta gutunen, oroitzapenen edo izaera intimoko beste idazki pertsonal batzuen berri ematea nahiz horiek argitaratzea ere.

4. Pertsona edo familiaren datu pribatuak ezagutaraztea, baldin eta datu horiek ezagutu badira datuon berri ematen duen subjektuaren lanbide-jarduera edo jarduera ofiziala dela eta.

5. Norbaiten irudiak jasotzea, erreproduzitza edo argitaratza, argazki, film edo beste edozein prozeduraren bidez, pertsona horren bizitza pribatuko toki zein uneetan, edo horietatik kanpo, 8.2 artikuluan ezarritako kasuetan izan ezik.

6. Norbaiten izena, ahotsa edo irudia erabiltza, iragarki-xedeetarako, merkataritza-xedeetarako edo antzeko xedeetarako.

7. Egitateak egoztea edo iritziak agertzea, beste pertsona baten duintasuna edozein modutan urratzen duten ekintza edo adierazpenen bidez, pertsona horren ospearri kalte eginez edo beraren estimuaren aurka eginez.

8. artikulua

1. Orokorean, ez da bidegabeko esku-sartze gisa hartuko agintari eskudunak legearen arabera baimendu edo erabakitako jarduna. Gauza bera gertatuko da, interes historiko, científico edo kultural garrantzitsua nagusitzen denean.

2. Bereziki, norberaren irudirako eskubideak ez du eragotzik:

a) Edozein bide erabilita pertsonen irudiak jasotza, erreproduzitza edo argitaratza, pertsona horiek kargu publikoa edo entzute handiko lanbidea nahiz garrantzi publikoa dutenean, eta irudiak jasotzen direnean ekitaldi publikoan edo jendaurrean zabalik dauden tokietan.

b) Pertsona horien karikaturak erabiltza, gizarte-usadioekin bat etorriz.

c) Gertaera edo jazoera publiko baten gaineko informazio grafikoa, pertsona jakin baten irudia bigarren mailako gisa agertzen denean.

Artikulu honen a) eta b) idatz-zatietan jasotako salbuespenak ez zaizkie aplikatuko agintari edo pertsona jakin batzuei, pertsona horiek anonimoak izan behar direnean, eurek gauzatzen dituzten eginkizunen izaerarengatik.

9. artikulua

1. Lege honetan ezarri eskubideei begira, esku-sartze bidegabean aurkako babes judiziala eskatu ahal izango da prozesu-bide arruntak erabilita edo Konstituzioaren 53.2 artikuluan ezarritako prozedura erabilita.

Halaber, bidezkoa denean, babes-errekurtoa jarri

de amparo ante el Tribunal Constitucional.

2. La tutela judicial comprenderá la adopción de todas las medidas necesarias para poner fin a la intromisión ilegítima de que se trate y restablecer al perjudicado en el pleno disfrute de sus derechos, así como para prevenir o impedir intromisiones ulteriores.

Entre dichas medidas podrán incluirse las cautelares encaminadas al cese inmediato de la intromisión ilegítima, así como el reconocimiento del derecho a replicar, la difusión de la sentencia y la condena a indemnizar los perjuicios causados.

3. La existencia de perjuicio se presumirá siempre que se acredite la intromisión ilegítima.

La indemnización se extenderá al daño moral que se valorará atendiendo a las circunstancias del caso y a la gravedad de la lesión efectivamente producida, para lo que se tendrá en cuenta en su caso, la difusión o audiencia del medio a través del que se haya producido.

También se valorará el beneficio que haya obtenido el causante de la lesión como consecuencia de la misma.

4. El importe de la indemnización por el daño moral, en el caso del artículo 4, corresponderá a las personas a que se refiere su apartado 2 y, en su defecto, a sus causahabientes, en la proporción en que la sentencia estime que han sido afectados.

En los casos del artículo 6, la indemnización se entenderá comprendida en la herencia del perjudicado.

5. Las acciones de protección frente a las intromisiones ilegítimas caducarán transcurridos cuatro años desde que el legitimado pudo ejercitarlas.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo previsto en la presente Ley Orgánica.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera

Derogada por la Disposición Derogatoria de la Ley Orgánica 5/1992, de 29 de octubre, de Regulación del Tratamiento Automatizado de Datos de Carácter Personal (BOE, núm. 262, de 31 de octubre).

Segunda

En tanto no sean desarrolladas las previsiones del artículo 53.2 de la Constitución sobre establecimiento de un procedimiento basado en los principios de preferencia y sumariedad, la tutela judicial de los derechos al honor, la intimidad personal y familiar y a la propia imagen se podrá recabar, con las peculiaridades que establece esta ley sobre legitimación de las partes, por cualquiera de los

ahal izango da Konstituzio Auzitegian.

2. Babes judizialak bere barnera bilduko du beharrezko neurri guztiak hartzea, esku-sartze bidegabea amaitzeko eta kaledunari bere eskubide guztiak berrezartzeko, bai eta bihar- -etziko esku-sartzeak prebenitzeko edo saihesteko ere.

Neurri horien artean egon ahal izango dira kautelazkoak, esku-sartze bidegabea berehala geldiarazteko, bai eta erantzuteko eskubidea aitorzea, epaiak hedatzea eta eragindako galeren ondoriozko kalte-ordinak ematera kondenatza ere.

3. Kaltea badagoela uste izango da, baldin eta esku-sartze bidegabea egiaztatzen bada.

Kalte-ordinak bere baitara bilduko du kalte moral, eta kalte moral hori baloratuko da kasuan kasuko inguruabarrak eta benetan eragindako lesioaren larritasuna kontuan hartuta. Balorazio hori egiteko, aintzat hartuko da, hala denean, kaltea eragin duen bidearen hedatzea edo ikus-entzule kopurua.

Baloratuko da, halaber, lesioa eragin duenak lesioaren ondorioz lortutako onura.

4. Kalte moralaren ondoriozko kalte- ordainaren kopurua, 4. artikuluaren kasuan, artikulu horren 2. paragrafoak aipatu pertsonek, eta, horiek izan ezean, pertsona horien kausadunek jasoko dute; epaiak ezarriko du pertsona horiek zenbateraino diren kaledunak, eta horren araberakoa izango da kalte-ordaina.

Lege honen 6. artikuluko kasuetan, ulertuko da kalte- ordaina kaledunaren jarauntsira bildu dela.

5. Esku-sartze bidegabean aurkako babes-akzioak iraungiko dira, legitimazioa duenak akzio horiek egikaritzeko aukera izan zuenetik lau urte igaro direnean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe geratuko dira lege honen lerrun bera edo txikiagoa duten xedapen guztiak, lege organiko honetan ezarritakoaren aurkakoak diren neurrian.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa

Indargabetuta, Izaera Pertsonaleko Datuen Tratamendu Automatizatua Arautzeko urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoaren xedapen indargabetzailearen ondorioz (EOA, 262. zk., urriaren 31koa).

Bigarrena

Konstituzioaren 53.2 artikulan zenbait xedapen jaso dira, lehentasun- eta sumariotasun-printzipioetan oinarritutako prozedura ezartzeari buruz; bada, xedapen horiek garatzen ez diren bitartean, ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako, eta norberaren irudirako eskubideen babes judziala eskatu ahal izango da beste bide batzuk erabilita, lege honek alderdien legitimazioaren inguruan ezarri

procedimientos establecidos en las Secciones II y III de la Ley 62/1978, de 26 de diciembre, de Protección Jurisdiccional de los Derechos Fundamentales de la Persona.

Agotado el procedimiento seguido, quedará expedido el recurso de amparo constitucional en los supuestos a que se refiere el capítulo I, del Título III de la Ley Orgánica 2/1979, de 3 de octubre, del Tribunal Constitucional.

berezitasunekin. Bide horiek ezarri dira Pertsonaren Oinarrizko Eskubideen Jurisdikzio Babesari buruzko abenduaren 26ko 62/1978 Legearen II eta III. ataletan.

Behin erabilitako prozedura amaituta, babes- - errekurso konstituzionala jarri ahal izango da, Konstituzio Auzitegiari buruzko urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren III. tituluko I. kapituluak ezarritako kasuetan.